

## I. XEDAPEN OROKORRAK

## ESTATUKO BURUZAGITZA

**7287** *Hutsen zuzenketa, honako errege lege dekretuarena: 8/2014 Errege Lege Dekretua, uztailaren 4koa, hazkuntza, lehiakortasuna eta eraginkortasuna sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen.*

Hutsak aurkitu direnez hazkuntza, lehiakortasuna eta enplegua sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuan (2014ko uztailaren 5eko BOE, 163. zenbakia), zuzendu egiten dira honen bidez.

23. orrialdean, azken lerrokadan, hau dioen lekuan: «... Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 12. artikuluan aurreikusitako ...», honakoa esan behar du: «... Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 11. artikuluan aurreikusitako ...».

41. orrialdean, 20.7. artikuluan, hau dioen lekuan: «(...) IX. eranskinean», honakoa esan behar du: «(...) VIII. eranskinean».

44. orrialdean, 28.2. artikulua lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «Atal honetan (...)», honakoa esan behar du: «Kapitulu honetan (...)».

46. orrialdean, 29.1. artikulua azken lerrokada —f) letra—, hau dioen lekuan: «—VIII. eranskineko 5. puntuan aipatzen da—», honakoa esan behar du: «—VIII. eranskineko 6. puntuan aipatzen da—».

46. orrialdean, 29.1. artikulua g) leturan, hau dioen lekuan: «(...) VIII. eranskinaren 1. paragrafoan (...)», honakoa esan behar du: «(...) VIII. eranskinaren 4. paragrafoan (...)».

57. orrialdean, 47. artikulua amaieran, ezabatu egiten da «Zazpigarren xedapen gehigarria. Eranskinak aldatzea».

61. orrialdean, 50. artikulua 6. paragrafoan, hau dioen lekuan: «—3. paragrafoko d) idatz-zatiaren 2., 3. eta 7. zenbakietan eta 4. paragrafoan eskatzen dira, hurrenez hurren—», honakoa esan behar du: «—3. paragrafoko d) idatz-zatiaren 7. zenbakian eta 4. paragrafoan eskatzen dira, hurrenez hurren—».

71. orrialdean, azken aurreko paragrafoan, hau dioen lekuan: «(...) 19. artikuluko e) idatz-zatian (...)», honakoa esan behar du: «(...) 19. artikuluko d) idatz-zatian (...)».

76. orrialdean, 57. artikulua idazpuruan, hau dioen lekuan: «22 artikulua. Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea», honakoa esan behar du: «Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.».

77. orrialdean, 58. artikulua idazpuruan, hau dioen lekuan: «23 artikulua. Erantzuleak.» «23 artikulua. Ontziratutako petrolioaren gas likidotuen etxez etxeko hornidura egiteko betebeharrak duten PGLaren handizkako operadoreen zerrenda.», honakoa esan behar du: «Ontziratutako petrolioaren gas likidotuen etxez etxeko hornidura egiteko betebeharrak duten PGLaren handizkako operadoreen zerrenda.».

78. orrialdean, 59. artikuluko 3. paragrafoa bi paragrafotan zatitzen da (3 eta 4), idazkera honekin:

«3. Aktiboen titular diren eta ordainsari arautua duten enpresen kasuan, zenbait arlotan araudi espezifikoak aplikatzen zaizkie eta horren ondorioz, egiten duten jardueran kostu handiagoak izaten dituzte; enpresa horiek hitzarmenak edo bestelako mekanismoak ezarri ahal izango dituzte Herri Administrazioekin, sortutako gailuzko estaltzeko. Arau horiek eragindako gailuzko ez da, inolaz ere, enpresa horiei onartutako ordainsarian; beraz, ezin izango da ordaindu gas-sistemaren diru-sarreraren bitartez.»

4. Sistemaren kostuak gas-sistemaren diru-sarreraren bitartez finantzatzeko dira. Kostu horiek Errege Lege Dekretu honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoari jarraiki zehaztuko dira; honako hauek izango dira:

a) Gasaren garraioa, birgasifikazioko, oinarritzko biltegitratzeko eta banaketako jardueren ordainsaria.

b) Sistemaren kudeaketa teknikoaren ordainsaria.

c) Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren tasa.

d) Hala badagokio, gas natural likidotuaren edo manufakturatutako gasaren eta/edo gas naturala ez den aire propanatuaren kostu diferentziala gasbide-sarearekin konexiorik edo birgasifikazio-instalaziorik ez duten uharteetan, bai eta banaketa-enpresek lurralde horietan egin duten tarifaren arabera hornidurari dagokion ordainsaria.

e) Eskaria kudeatzeko neurriak, erregelamendu bidez halakotzat hartzen badira Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Errege Lege Dekretu honen 61. artikuluan aipatzen diren aldi baterako desorekei dagokien urtesaria, dagozkion interes eta doikuntzekin.

g) Lege-mailako arau batean espresuki esleitzen zaion beste edozein kostu, betiere legearen xedea gas-sistemaren araudiarekin soilik loturik badago.».

78. orrialdean, 59. artikuluko 4. eta 5. paragrafoak 5. eta 6. paragrafoak izango dira aurrerantzean.

79. orrialdean, 62. artikuluan 1. paragrafoan, hau dioen lekuan: «1. 2014ko urtarrilaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean sartu bitartean, banaketa-enpresa bakoitzaren ordainsaria zifra baten zati proportzionala izango da;», honakoa esan behar du: «1. 2014ko urtarrilaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean sartu bitartean (2014ko lehenengo aldia), banaketa-enpresa bakoitzaren ordainsaria zifra baten zati proportzionala izango da;».

80. orrialdean, 62. artikuluan 1. paragrafoan, hau dioen lekuan: «(...) 1. paragrafoan aipatzen den zifraren data horretara arteko zati proportzionala, eta 2014ko lehen epea izena izango du.», honakoa esan behar du: «(...) 1. paragrafoan aipatzen den zifraren data horretara arteko zati proportzionala.».

80. orrialdean, 64. artikuluan idazpuruan, hau dioen lekuan: «29 artikulua. Gas naturalaren birgasifikazioko, garraioko eta oinarritzko biltegitratzeko jardueren ordainsaria zehaztea.», honakoa esan behar du: «Gas naturalaren birgasifikazioko, garraioko eta oinarritzko biltegitratzeko jardueren ordainsaria zehaztea.».

87. orrialdean, 75. artikuluan 5. paragrafoan, hau dioen lekuan: «... Errege Lege Dekretu honen 34. artikuluari jarraiki...», honakoa esan behar du: «... Errege Lege Dekretu honen 69. artikuluari jarraiki...».

87. orrialdean, 77. artikuluan idazpuruan, hau dioen lekuan: «77. artikulua. 42. artikulua. Erantzuleak.», honakoa esan behar du: «77 artikulua. Erantzuleak.».

92. orrialdean, 85. artikuluan 1. paragrafoan, hau dioen lekuan: «... Lege honetako eta legea garatzeko xedapenetako aginduak aplikatzean...», honakoa esan behar du: «... Errege lege-dekretu honetako eta legea garatzeko xedapenetako aginduak aplikatzean...».

92. orrialdean, 85. artikuluan 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «... Lege honetan tipifikatutako ...», honakoa esan behar du: «... Errege lege-dekretu honetan tipifikatutako ...».

98. orrialdean, 101.4. artikuluan bigarren lerrokadan, hau dioen lekuan: «...106., 107., 108. eta 109. artikuluetan aurreikusitako...», honakoa esan behar du: «...106. artikuluan aurreikusitako...».

99. orrialdean, 105.1. artikuluan azken lerrokadan, hau dioen lekuan: «... 106. artikuluan 3. eta 4. paragrafoetan...», honakoa esan behar du: «... 106. artikuluan c) eta d) idatz-zatietan...».

100. orrialdean, 105.7. artikuluan, hau dioen lekuan: «63. artikulua 4. paragrafoko lehen letrikadan aurreikusitako adina gaituta ere, 68., 69., 70. eta 71. artikuluetan aurreikusitako ekintza edo neurriren batekin arreta jasotzen ari diren erabiltzaileek onuradun izaten jarraituko dute eta enpresek –autonomoek barnean hartuta– Errege Lege Dekretu honetan aurreikusitako pizgarriak jasotzen ere jarraituko dute.», honakoa esan behar du: «101. artikulua 4. paragrafoko lehen letrikadan aurreikusitako adina gaituta ere, 106. artikuluan aurreikusitako ekintza edo neurriren batekin arreta jasotzen ari diren erabiltzaileek onuradun izaten jarraituko dute eta enpresek –autonomoek barnean hartuta– 107., 108. eta 109. artikuluetan aurreikusitako pizgarriak jasotzen ere jarraituko dute.».

101. orrialdean, 107.1. artikulua lehenengo letrikadan, hau dioen lekuan: «1. Gazte Bermea Sistema Nazionalaren onuradun den 16 urtetik 25 urtera bitarteko gazte bati edo ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasun-maila duen 16 urtetik 30 urtera bitarteko gazte bati kontratu mugagabea –aldizkako kontratu finkoa barnean hartuta– egiten dioten enpresek –langile autonomoak ere barnean hartuta– hilean 300 euroko hobaria izango dute Gizarte Segurantzaren kotizazioari enpresak egin beharreko ekarpenen.», honakoa esan behar du: «1. Gazte Bermea Sistema Nazionalaren onuradun den pertsona bati kontratu mugagabea –aldizkako kontratu finkoa barnean hartuta– egiten dioten enpresek –langile autonomoak ere barnean hartuta– hilean 300 euroko hobaria izango dute Gizarte Segurantzaren kotizazioari enpresak egin beharreko ekarpenen.».

105. orrialdean, 112. artikuluko hirugarren letrikadan, hau dioen lekuan: «Batzordean gehienez ere hiru ordezkari egongo dira Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean parte hartu zuten autonomia-erkidego bakoitzeko, enpleguaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta/edo gazteen eremu guztietatik. Era berean, Batzordeko kide izango dira Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak Europako Gizarte Funtsa administratzeko eskumenak esleituta dituen Zuzendaritza Nagusiaren eremutik eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eremutik edo bere eskumeneko beste edozein eremutatik izendatzen dituenak.», honakoa esan behar du: «Batzordean gehienez ere hiru ordezkari egongo dira Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean parte hartu zuten autonomia-erkidego bakoitzeko, enpleguaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta/edo gazteen eremu guztietatik. Era berean, Batzordeko kide izango dira Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak Europako Gizarte Funtsa administratzeko eskumenak esleituta dituen Zuzendaritza Nagusiaren eremutik eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eremutik edo bere eskumeneko beste edozein eremutatik izendatzen dituenak.».

107. orrialdean, 114. Bi artikuluan, Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legeko 4 bis.4 artikulua f) idatz-zatiak hartutako idazkeran, hau dioen lekuan: «... komunikazioa hobetzeko egiten diren ekintza eta neurriak biltzen ditu,...», honakoa esan behar du: «...komunikazioa hobetzeko egiten diren ekintzak, neurriak eta jarduerak biltzen ditu,...».

107. orrialdean, hau dioen lekuan: «Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusiak txostena egin beharko du, 7.1.b) artikuluan araututakoari jarraiki, ...», honakoa esan behar du: «Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusiak txostena egin beharko du, 7.b) artikuluan araututakoari jarraiki, ...».

128. orrialdean, hamazazpigarren xedapen gehigarriko 4. paragrafoan, hau dioen lekuan: «Artikulu honen 1. paragrafoan aipatzen diren jarduerak mandatu bidez gauzatzea ENAIREri dagokio, (...)», honakoa esan behar du: «Xedapen honen 1. paragrafoan aipatzen diren jarduerak mandatu bidez gauzatzea ENAIREri dagokio, (...)».

129. orrialdean, hogeita batgarren xedapen gehigarrian, hau dioen lekuan: «(...) zerbitzu publikoak doan izaten jarraituko du, inolako salbuespenik gabe.99.», honakoa esan behar du: «(...) zerbitzu publikoak doan izaten jarraituko du, inolako salbuespenik gabe.».

131. orrialdean, lehenengo xedapen iragankorrean, hau dioen lekuan: «28.1 eta 29.1 artikuluetan aipatutako ...», honakoa esan behar du: «63.1 eta 64.1 artikuluetan aipatutako ...».

131. orrialdean, hirugarren xedapen iragankorreetan, hau dioen lekuan: «Errege Lege Dekretu honen 32.Bat artikuluan ...», honakoa esan behar du: «Errege Lege Dekretu honen 67.Bat artikuluan...».

132. orrialdean, laugarren xedapen iragankorreko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «Hirugarren xedapen iragankorreetan xedatutakoa (...)», honakoa esan behar du: «Seigarren xedapen iragankorreetan xedatutakoa (...)».

132. orrialdean, laugarren xedapen iragankorreko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «...aldeek 103. artikuluan aurreikusitako informazioa (...)», honakoa esan behar du: «...aldeek 35. artikuluan aurreikusitako informazioa (...)».

134. orrialdean, bederatzigarren lerrokadaren lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «I. eranskinean zehaztutako P indizea (...)», honakoa esan behar du: «VIII. eranskinean zehaztutako P indizea (...)».

134. orrialdean, 4. paragrafoan, hau dioen lekuan: «...Errege Lege Dekretu honen I. eranskinean...», honakoa esan behar du: «...Errege Lege Dekretu honen VIII. eranskinean...».

134. orrialdean, zazpigarren xedapen iragankorreetan, hau dioen lekuan: «Hirugarren xedapen iragankorreetan xedatutakoa (...)», honakoa esan behar du: «Seigarren xedapen iragankorreetan xedatutakoa (...)».

136. orrialdean, azken xedapenetako lehenean, 3. paragrafoan, hau dioen lekuan: «3. Errege Lege Dekretu honen 5. artikulua Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean eman da; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio «jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren» gaineko eskumena.», honakoa esan behar du: «3. Errege Lege Dekretu honen 4., 5. eta 7.artikuluak Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean eman da; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio «jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren» gaineko eskumena».

136. orrialdean, azken xedapenetako lehenean, hau dioen lekuan: «5. IV. titulua Konstituzioaren (...)», honako esan behar du: «5. III. titulua Konstituzioaren (...)».

137. orrialdean, azken xedapenetako lehenean, beste paragrafo bat —7 zenbakikoa— txertatu behar da eta, horren eraginez, 7. eta 8. paragrafoak 8. eta 9. paragrafo bihurtuko dira aurrerantzean. 7. paragrafo sortu berriaren idazkera:

«7. V. tituluaren aurreikusitakoa Konstituzioaren 149.1.14 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da; artikulua horrek segurtasun publikoaren gaineko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari».

137. orrialdean, azken xedapenetako lehenean, beste paragrafo bat —10 zenbakikoa— txertatu behar da, idazkera honekin: «I. tituluaren III. kapituluaren Konstituzioaren 149.1 artikulua 6., 11. eta 13. paragrafoetan xedatutakoaren babespean eman da.».

138. orrialdean, azken xedapenetako laugarrenaren 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «Errege Lege Dekretu honen 28. eta 29. artikulua (...)», honakoa esan behar du: «Errege Lege Dekretu honen 63. eta 64. artikulua (...)».

138. orrialdean, azken xedapenetako bosgarrenaren 3. paragrafoan, hau dioen lekuan: «Errege Lege Dekretu honen 16.3. artikulua (...)», honakoa esan behar du: «Errege Lege Dekretu honen 32.3. artikulua (...)».

146. orrialdean, bederatzigarren lerroaldeko amaieran, hau dioen lekuan: «...24. artikuluan aurreikusitako...», honakoa esan behar du: «...II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako...».

151. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «1. Jarduera bakoitzean...», honakoa esan behar du: «a) Jarduera bakoitzean...».

151. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «2. Inbertsio-kostuak...», honakoa esan behar du: «b) Inbertsio-kostuak...».

151. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «3. i ibilgetuaren elementuaren amortizazioagatik ordainsaria...», honakoa esan behar du: «c) i ibilgetuaren elementuaren amortizazioagatik ordainsaria.».

152. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «4. «n» urtean «i» ibilgetuaren elementuaren inbertsioaren finantza-ordainsaria...», honakoa esan behar du: «d) «n» urtean «i» ibilgetuaren elementuaren inbertsioaren finantza-ordainsaria.».

152. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «5. «i» ibilgetuaren elementuaren erregulazioko bizitza baliagarria bukatu ondoren,», honakoa esan behar du: «e) «i» ibilgetuaren elementuaren erregulazioko bizitza baliagarria bukatu ondoren,».

152. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «6. 2008. urteko urtarrilaren 1a baino lehen zerbitzuan jarritako garraioko gasbideen kasuan,... », honakoa esan behar du: «f) 2008. urteko urtarrilaren 1a baino lehen zerbitzuan jarritako garraioko gasbideen kasuan,... ».

152. orrialdean, XI. eranskineko 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «7. Garraioko gasbide-sareko instalazioen eta birgasifikazio-planten eragiteko,...», honakoa esan behar du: «g) Garraioko gasbide-sareko instalazioen eta birgasifikazio-planten eragiteko,...».

153. orrialdean, XI. eranskineko 3. paragrafoan, lehenengo puntuko formula azaltzen duenean, hau dioen lekuan: «m= «n-1» urtean «j» elementuen guztizko kopurua.», honakoa esan behar du: «m=«n-1» urtean «i» elementuen guztizko kopurua.».

153. orrialdean, XI. eranskineko 3. paragrafoan, lehenengo puntuko formula azaltzen duenean, hau dioen lekuan:

$$\left\langle \alpha_n^{i,A} = \frac{VRI_{n-1}^i}{\sum_{j=m}^{j=n} VRI_{n-1}^j} \right\rangle$$

Honakoa esan behar du:

$$\left\langle \alpha_n^{i,A} = \frac{VRI_{n-1}^i}{\sum_{i=1}^{i=m} VRI_{n-1}^i} \right\rangle$$

154. orrialdean, XI. eranskineko 4. paragrafoko azken lerrokadan, hau dioen lekuan: «... gehieneko balioa 30 TWh MWh da,...», honakoa esan behar du: «... gehieneko balioa 30 TWh,...».